



Arartekoaren 2019R-422-18 Ebazpena, 2019ko martxoaren 21ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezan diru-sarrerak bermatzeko errenta 12 hilabetez eteten duen ebazpena, ez baitago etetea erabakitzeke arrazoirik, ezta etenaldiaren iraupena kalkulatzeko sistema baliozkotu dezakeen nahikoa lege-oinarririk ere.

Aurrekariak

1.- Herritar batek, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak, Arartekora jo zuen eta esku-hartzeko eskatu zuen, ez baitzegoen ados Lanbideren 2018ko otsailaren 21eko ebazpenarekin, zeinen bidez erabaki baitzen diru-sarrerak bermatzeko errenta aldi baterako etetea.

Arrazoa honako hau zen: *“No administrar responsablemente los recursos disponibles y no actuar diligentemente con el fin de evitar el agravamiento de la situación económica o de la situación de exclusión. Suspensión de RGI durante 12 meses por solicitud de préstamo bancario para refinanciación de la hipoteca.”*

Lehenago, 2018ko urtarrilaren 22ko entzunaldi-izapidean kexagileak jakin zuen betebeharrak eta/edo baldintzak agian bete ez izana antzeman zuela Lanbidek. Hain zuzen ere, honako arrazoi hau jasota zegoen administrazioaren idazkian: *“Administrar responsablemente los recursos disponibles y actuar diligentemente con el fin de evitar el agravamiento de la situación económica o de la situación de exclusión. USTED SOLICITÓ UN PRÉSTAMO QUE NO ESTÁ DESTINADO A LA COMPRA DE VIVIENDA HABITUAL SINO A UNA REFINANCIACIÓN DE LA HIPOTECA POR NO HABER PAGADO CUOTAS.”*

2.- Entzunaldi-izapideari erantzunez, prestazioen titularrak bigarren mailegu bat eskatzeko arrazoa azaltzen zuen dokumentazioa aurkeztu zuen; izan ere, jabetzan daukan etxebizitza –ohiko bizilekua– kargatzen zuen hipoteka birfinantzatu nahi izan zuen (dokumentazioa aurkeztu izanaren agiriaren erreferentzia-zenbakia Lanbiden: 2018/53333). Kexagileak adierazi zuen ordainketa irregularrak lan prekarietateak, osasun arazoek eta diru-sarrerarik ezak –diru-sarrerak bermatzeko errenta izan ezik– eragindako zailtasunen ondorioa zirela. Hala ere, azpimarratu zuen lehenago edo geroago ordainduko zituela kontzeptu guztiak, bai kapitala, bai interesak, hortaz, bere iritziz, egoera larriagotzea saihesteko modu egokia bankuarekin ordainketa programa bat negoziatzea zela.





Bereziki interesgarria da agerian jartzea bizikidetza-unitatean bi adingabe daudela eta gurasoetako batek giltzurruneko gaixotasun larri bat duela aspalditik. Gaitzaren ondorioz, beti izan ditu zailtasunak lana bilatzeko orduan; gainera, azken urteotan bere osasun egoera larriagotu egin denez, aldi behin dialisia egin beharra du; ondorioz, ia-ia ezinezkotzat jo behar da lan-merkatuan sartzea. Horren guztiaren ondorioz, egun, interesdunak % 75eko ezgaitasun gradua du, orain dela gutxi aitortua, baita I. mailako mendetasuna ere; azken horri dagokionez, berrikuspenaren zain dago¹.

Kexagileak ziurtatu du aurkeztu dituela Lanbiden gaixotasuna egiaztatzeko mediku-txosten guztiak, eta horiek agerian uzten dituztela gaitzaren ondorioz dituen eragozpenak; horren froga da, adibidez, Enplegu Eskaerari Alta Eman eta Berritzeko Dokumentua berritzeko betebeharretik salbuetsita egotea.

3.- 2018ko martxoaren 21ean, kexagileak berraztertze-errekurtsoa jarri zuen aipatu ebazpenaren aurka, eta banku-erakundeak igorritako txosten berria erantsi zion idazkiari. Txostenak berretsi egin zuen ordainketak –irregularrak izan arren– zordunaren eta hartzekodunaren artean adostutako ordainketa planarekin bat egin zirela, eta azkenean, alde biek bigarren mailegu kontratua egitea erabaki zutela, etxebizitzari lotutako hipoteka birfinantzatzeko.

4.- Aurkeztutako kexari izapide egokia emate aldera, Arartekoak prestazioa eteteko arrazoi zehatzak azaltzeko eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, baita sailaren ustez bete ez zen lege-xedapena aipatzeko ere.

5.- Lehenengo informazio-eskaeraren inguruko erantzunik jaso ez genuenez, Arartekoak errekerimendu bat igorri zion sail horri, eta berariaz erantzun behar zuela gogorarazi zion.

6.- Informazio-eskaerari erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiaren idazki bat jaso genuen erakunde honen erregistroan.

Prestazioa eteteko arrazoiei eta oinarri juridikoari dagokionez:

¹ Ebazpen hau emateko egunera arte ez dira amaitu kexagileari desgaitasunagatik legozkioken prestazioak aitortzeko izapideak. Ondoren, diru-sarrerak bermatzeko errenta pentsiodunaren bizikidetza-unitateari dagokion prestazio gisa aitortuko litzateke.





“2018ko martxoaren 12an jakinarazi zitzaion 2018/REV/007055 berrikusketa-espeditoarearen ebazpena, zeinaren bitartez Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko eskubidea eten zitzaion. 2018ko martxoaren 21ean berraztertze errekurtsoa jarri zion aipatutako ebazpen horri, eta ezeztapen-ebazpena eman zitzaion 2019ko urtarrilaren 10ean.

Honako hauek dira errekurtsogileak aurkeztutako alegazioak aintzat ez hartzeko argudio juridikoak:

2018ko otsailaren 13an, errekurtsogileak idazki bat aurkeztu zuen, zeinaren bitartez egiaztatu baitzuen 15 urterako banku-mailegu bat eskatu zuela, 15.730 €ko baliokoa, bere ohiko etxebizitzaren ordainketari aurre egin ahal izateko, edo, beste era batera esanda, 2009ko apirilaren 27tik bere titulartasuneko den hipoteka-mailegua berriz finantzatzeko.

*Azken egitate horren ondorioz, behin errekurtsogilearen DSBE espedientea berrikusita, honako hau kontsideratu da, 12.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz: ‘Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak, prestazio ekonomikoaren modalitatea edozein dela ere, honako betebeharrak ditu: c) **erantzukizunez banatzea eskuragarri dauden balibabideak**, eta diligentsiaz jardutea, egoera ekonomikoa edo baztertze-egoera larritzea eragozteko’. DSBEren titular guztiei inposatutako betebeharrak ez denez bete, prestaziorako eskubidea eten behar zaio persona horri.*

***Lanbidek Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren inguruan ezarritako irizpide publikoei jarraikiz, DSBEren hartzaileek mailegu pertsonalak edo hipoteka-maileguak eskatzen dituztenean honako hau da arau orokorra: ez da onartuko DSBEren hartzaileek mailegurik eskatzea laguntza jasotzen duen bitartean; izan ere, DSBE ezin da inolaz ere kontsideratu inongo atzeratutako mailegu edo ordainketaren ordainketa-berme. Lan-jarduera bat abiarazteko baino ez da izango onargarria mailegu bat eskatzea, betiere lokal bat erosteko ez bada.**”*

Maileguak ezohiko diru-sarreratzat jotzeari dagokionez:

*“Mailegua ohiko etxebizitza eskuratzeko edo Dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritako kasuetarako **bideratzen denean** (ohiko etxebizitza saltzea eta lortutako baliabideak beste ohiko etxebizitza bat erosteko erabiltzea),*





zenbateko horiek ez dira ezohiko diru-sarrera gisa zenbatetsiko, baina DSBE jasotzeko eskubidearen behin-behineko etetea ekarriko dute beraiekin.

Kasu zehatz honetan, eskatutako mailegua aldeztatik eskatutako hipoteka bat berriz finantzatzeko denez, ohiko etxebizitza eskuratzeko mailegua dela ulertzen dugu; horrenbestez, ez zaio ezohiko diru-sarrera gisa konputatuko, baina DSBE jasotzeko eskubidea aldi baterako etengo zaio.”

Etenaldiaren iraupenari dagokionez, txostenak hauxe dio:

“Etenaldiaren iraupena kalkulatzeko, 147/2010 Dekretuaren 45.1 artikuluan ezarritakoa aplikatzen da; zehazki, honako hau egin behar da: bizikidetz-unitateari inolako diru-sarrerarik gabe dagokion gehieneko DSBE kopuruagatik zatituko da maileguarean zenbatekoa. (15.730/915,47= 17,18 hilabete)

Aurretik egindako kalkuluan ikus daitekeenez, kasu honetan aplikatu beharko genukeen etetearen iraunaldia 17 hilabetekoa da, baina honako hau ezartzen du azaroaren 24ko 4/2011 Legearen 26.2 artikulua: ‘Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetearekin batera, prestazioa ordaintzeari utzi egingo zaio etetea gertatu eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera, eta horrelaxe jarraituko da etetea eragin duen egoerak bere horretan diraun bitartean. Etenaldia ez da inoiz ondoz ondoko hamabi hilabete baino luzeagoa izango; behin epe hori igaroz gero, prestazioa jasotzeko eskubidea azkendu egingo da’.

Artikulu horretan adierazitakoa betetze aldera, aplikatu beharreko etetea 12 hilabetekoa izango da (etenaldirik luzeena 12 hilabetekoa izango da gehienez, kalkuluan hilabete gehiago atera arren).”

7.- Interesdunak jakinarazi duenez, prestazioa eten izanaren ondorioz, une honetan, **familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa** da bizikidetz-unitatearen diru-sarrera bakarra (hilean 180 euro); horrez gain, Caritasek janarirako laguntzak ematen dizkie. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera berria aurkeztu du, 2018ko otsailaren 21eko ebazpena eman zenean hasitako etenaldia amaituta.

Bukatzeko esan du aurreko paragrafoan aipatutakoak kenduta beste diru-sarrerarik ez duenez, ezin izan dituela hipoteka kuotak ordaindu; ondorioz, banku-





erakundearekin izan duen zorra handiagotu egin da eta kexagilearen egoera are zailago bihurtu da.

8.- Beraz, uste dugunez baditugula beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbide elementuak, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1.- Egitateen azalpenean adierazi bezala, enplegua sustatzeko erakunde autonomoak, kexagilearen jokabidea ikusita (kexagileak bankuan 15.730 euroko mailegua eskatu zuen, 15 urteko epean itzultzeko, eta hori 2009ko apirilaren 27tik bere titulartasunekoa den ohiko etxebizitzaren hipoteka ordaindu ahal izateko), honako hiru erabaki hauek hartu ditu:

- 1) Lanbidek eten egin du diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa, 2010eko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1.c) artikulua ez betetzeagatik.
- 2) Erabaki du etenaldiaren iraupenak bat etorri behar duela honako kalkulu honen emaitzarekin: maileguaren zenbateko osoa zati diru-sarrerak bermatzeko errenta dela eta bizikidetzaren unitateari hilean dagokion zenbatekoa. Horrela, ordainketa 17 hilabetez eten egin behar dela ondorioztatu du. Hala ere, araudiak –etenaldiaren iraupenari dagokionez– muga bat ezartzen duela kontuan hartuta (dekretu beraren 45. artikulurekin bat, 12 hilabete), azkenean, enplegua sustatzeko erakunde autonomoak urtebetez etetea onartu du.
- 3) Ulertu duenez, familia-unitatearen ohiko bizitokia den etxebizitzaren hipoteka birfinantzatzeko dela kontuan hartuta, ezin da mailegua arau-multzoko bereko 20. artikuluan xedatutako ezohiko diru-sarrera gisa zenbatu. Hori dela eta, ez du bidezkotzat jo bizikidetzaren unitateari aitortutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa aldatzea, hau da, gutxitzea, ezta mailegua formalizatu zenetik prestazioa berrikusi arte igarotako denboran jaso behar ez ziren prestazioak erreklamatzeko ere. **Edonola ere, mailegua ezohiko diru-sarreratzat hartuz gero (diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea eten egin gabe) prestaziorako eskubideari eutsiko zitzaion, horren zenbatekoa txikiagoa izango baten ere.**

Lehenengo bi puntuetan aipatutako erabakiak dira kexagileak azaldutako desadostasunaren arrazoia. Hau da, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren





prestazioa –prestazioen titularrak, bere emazteak eta bi seme-alaba adingabek osatutako bizikidetzaren unitatearen diru-sarrera bakarra– 12 hilabetez eten egin du, ulertu baitu prestazioen titularraren jokabidea ez dela bateragarria baliabideak arduraz administratzeko beharrekkin.

2.- Lanbideko zuzendari nagusiaren txostenak hauxe dio, hitzez hitz: **“Mailegua ohiko etxebizitza eskuratzeko edo Dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritako kasuetarako bideratzen denean (ohiko etxebizitza saltzea eta lortutako baliabideak beste ohiko etxebizitza bat erosteko erabiltzea), zenbateko horiek ez dira ezohiko diru-sarrera gisa zenbatetsiko, baina DSBE jasotzeko eskubidearen behin-behineko etetea ekarriko dute beraiekin”**. Igorritako txostenean, Lanbidek horrelako kasuetan kontuan hartzen dituen irizpideen² edukia helarazi du.

Zentzu horretan, irizpideen edukiak, Ararteko honen iritziz, ez dauka nahikoa oinarririk gizarteratzeko euskal sistemako prestazioak erregulatzen dituen araudian.

Hain zuzen, 6.11 apartatuak hauxe dio:

“DSBE eskatu aurretiko mailegu pertsonalak: ezohiko diru-sarrera gisa zenbatuko dira DSBE jasotzen hasi aurretiko 5 hilabeteko denbora-tartean onuradunak eskatutako mailegu pertsonal guztiak.

DSBEren jasotzaile izanik lortutako mailegu pertsonalak eta hipoteka-maileguak:

Oro har, jasotzaileei ez zaie onartuko maileguak eskatzea, DSBE inola ere ezin baita erabili ezein kreditu ordainduko dela edo ezein ordainketa geroago egiteko konpromisoa beteko dela bermatzeko. Lan-jarduera bat abiarazteko baino ez dira izango onargarriak, betiere lokal bat erosteko ez badira. Halaber, mailegu horiek justifikatu egin beharko dira, lan-jarduerarako erabili direla frogatzen duten fakturak aurkeztuta.

Arau orokorra: Hartzaile batek mailegu bat eskatzen badu, prestazioa etengo da, 147/2010 Dekretuaren 12.1.c) artikuluan ezartzen den betebeharra ez betetzeagatik: Arduraz kudeatzea eskura dituen baliabideak eta bere egoera ekonomikoa larriagotzea saihestea.

2

http://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/rgi_criterios/eu_def/adjuntos/Irizpideak_DBE%20maiatza%202017.pdf





Era berean, ezohiko diru-sarreratzat hartuko da, eta hurrengo 60 hilabeteetan eragingo du prestazioaren kalkuluan, 147/2010 Dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoan oinarrituta.

Ohiko etxebizitza erosteko edo 147/2010 Dekretuaren 20.2. artikuluan jasotako gainerako kasuetarako erabiltzen bada mailegua, ezohiko diru-sarreraren zenbaketatik salbuetsiko da zenbateko hori. Era berean, mailegua ez da kontuan hartuko, lan-jarduera bat hasteko erabiltzen bada.

Etenaldiaren iraupena: 147/2010 Dekretuaren 45.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, inguruabar espezifiko hauei erreparatuta zehaztuko da etenaldiaren iraupena. Zehazki, honela kalkulatu da:

Etenaldiaren iraupena = Maileguaren zenbatekoa/Bizikidetzta-unitateari dagokion DSBEn gehieneko zenbatekoa

Salbuespena: Prestazioa ez da etengo, mailegua lan-jarduera bat hasteko eskatzen bada, lokal bat erosteko bada izan ezik. Ordainagiriak aurkeztuta justifikatu beharko da lan-jarduerara bideratu dela mailegua.”

Hala ere, legezkotasun printzipioa bete nahi izanez gero, kontuan hartu behar da bai Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, bai Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak azaldutako egitateen gainean ezartzen dutena.

Hain zuzen, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12. artikuluan prestazio horren titularra izateak dakartzan betebeharrak zerrendatu dira. Besteak beste, 1. c) apartatuan honako hau aipatu da: **“Erantzukizunez banatzea eskuragarri dauden baliabideak, eta diligentziaz jardutea, egoera ekonomikoa edo baztertze-egoera larritzea eragozteko”.**

Aztertzen dugun kasuan, Lanbidek prestazioa etetea erabakitzeko arrazoia ikusi du; izan ere, bere iritziz, hipoteka birfinantzatzeko bigarren mailegua hartu izanak betebeharrak bat ez betetzea ekarri du. Aitzitik, Arartekoari erantzunez jasotako txostena aztertuta, ez da egiaztatu enplegua sustatzeko erakunde autonomoak prestazioen titularraren egoera kontuan hartu duenik.

Interesdunak Lanbidean aurkeztutako dokumentazioaren arabera, hipoteka-maileguaren kuota –finkoa– hilean 465,30 euro da. Kexagileak mailegua eskatu zuenean, 2009an, bizikidetzta-unitatea dagoeneko bazen gizarte-prestazioen titularra. Hilean 915 euroko diru-sarrerak zituen, Lanbidek erakunde honi bidalitako





txostenaren arabera. Datu horietatik ondorioztatzen da familia-unitateak jasotzen zituen diru-sarreraren erdiak baino gehiago, nahitaez, etxebizitza ordaintzera bideratu behar zituela.

Arestian esan denez, kexagileak azaldu du hipoteka birfinantzatzeko erabakia hipoteka-mailegua eman zion banku-erakundearekin lortutako akordioaren ondorioa zela; izan ere, entzunaldi-fasean dagokion sukurtsalaren arduradunak igorritako txostena aurkeztu zuen, adostutakoa pixkanaka-pixkanaka betetzen zihoala egiaztatzeko.

Arartekoaren iritziz, hipoteka birfinantzatzeko bigarren mailegua eskatzeak diru-sarrerak behar bezala ez administratzea dela edo, gauza bera dena, bizikidetzaren unitatearen bazterketa soziala eta ekonomikoa areagotu duela pentsatzen bada, horrek esan nahi du ez direla kontuan hartzen familia batzuek eguneroko jardunean topatzen dituzten zailtasunak. Esan bezala, bizikidetzaren diru-sarrera bakarria hilean 915 euro izatea zen hipoteka ez ordaintzeko arrazoia; izan ere, kexagileak zenbateko horren erdia baino gehiago hipoteka ordaintzera bideratu behar zuenez, azkenean beste mailegu bat eskatu zuen hipoteka birfinantzatzeko, eta horrela, eskubide erreala betearaztea eta etxebizitza utzaraztea saihesteko.

Bizikidetzaren unitateak diru-sarrerak bermatzeko errenta bakarrik dauka oinarrizko beharrak betetzeko. Gainera, bizikidetzaren unitatearen osaera berezia eta titularraren mendetasun egoera laneratzeko oztopo dira bizikidetzaren unitatearen titularrarentzat, baita beste helduarentzat ere, familia-unitateko gainerako kideek zainketak behar dituztelako. Ildo horretan, 12.1.c) artikulua dio prestazioen titularrak behar bezala kudeatu behar dituela bere baliabideak, baita *egoera ekonomikoa edo **baztertze-egoera larritzea eragozte***a saihestu ere; Arartekoaren arabera, ezin da ukatu etxebizitzaren gastua bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak kontuan hartuta hain altua izatea, baita gurasoetako baten osasun egoera eta zaintza beharra ere, oztopo bihurtu direla hipoteka ordaintzeko. Arartekoaren iritziz, ezin da esan ordaindu ez diren hipoteka-kuotak birfinantzatzeko erabakia *“Erantzukizunez ez banatzea eskuragarri dauden baliabideak, eta diligentsiaz ez jardutea, egoera ekonomikoa edo baztertze-egoera larritzea eragozteko”* betebeharra ez betetzea denik. Birfinantzaketaren bidez, hain zuzen, hipoteka ordaintzeari aurre egin eta etxebizitzaren jabetzari eutsi nahi izan zen; bidezkoa da kontuan izatea ohiko etxebizitzaren titulartasuna izateak funtzio bikoitza duela: ondasun materiala izateaz gain, **familiaren bizitza normaltasunez egitea eta oinarrizko eskubideez gozatzea ahalbidetzen du, hala nola duintasunerako eskubideaz.**



Hala ere, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea 12 hilabetez eten izanaren ondorioz ezinezkoa zen hipoteka-kuota ordaintzea; ondorioz, familiak ez du etxebizitza jabetzeaz, eta hori ez dator bat Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen helburuarekin; hain zuzen, 1. artikulua araberaz: *“Lege honen xedea da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea, eta, horren barruan, beharrezko prestazio ekonomikoak eta tresnak izateko eskubidea arautzea, herritar izateak dakartzen eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten.”*

3.- Etenaldiaren iraupenaren haritik, Lanbideko zuzendari nagusiaren txostenak, erakunde honen informazio-eskaerari erantzunez bidalitakoak, azalpen xeheak eman ditu; erakunde autonomoaren araberaz: *“Etenaldiaren iraupena kalkulatzeko, 147/2010 Dekretuaren 45.1 artikuluan ezarritakoa aplikatzen da; zehazki, honako hau egin behar da: bizikidetzaren unitateari inolako diru-sarrerarik gabe dagokion gehieneko DSBE kopuruagatik zatituko da maileguaren zenbatekoa. (15.730/915,47 = 17,18 hilabete)*

Era berean, etenaldien iraupenaren mugari dagokionez (12 hilabete), Lanbideko honako hau adierazi du: *“etenaldirik luzeena 12 hilabetekoa izango da gehienez, kalkuluan hilabete gehiago atera arren.”*

Puntu horretan, ezinbestekoa da 147/2010 Dekretuaren 45. artikulua edukia kopiatzea:

*1.– Ordainketa etetea eragin duten zirkunstantziak irauten duten bitartean jarraituko du eteteak, gehienez ondoko hemezortzi³ hilabeteko aldirako, eta hori igarotakoan, prestaziorako eskubidea azkenduko da. Etenaldi-kasu bat gertatu bada, baina etendura egiteko garaian kasu hori desagertu bada edo berehala desagertzekotan badago, **prestazioa eten ahal izango da kasuaren ezaugarrien arabera ezarriko den aldi batez, eta aldi hori ez da inola ere ez-betetzearen kausa den iraupena baino handiagoa izango.***

2.– 43. artikulua 2. paragrafoa a), d) eta e) idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, etendura hilabetekoa izango da lehen aldiz gertatzen denean eta 3

³Azaroaren 24ko 4/2011 Legearen bidez egindako aldaketaren ondoren, 12 hilabete dira.



hilabetekoa ondoren berriro gertatzen bada, behin gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua egin behar duten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiaztatzen dutenean, hala dagokionean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin koordinatuz, Gizarteratze Hitzarmenean itundutakoa ez dela betetzen.

3.– Enplegu egoki bati arrazoi justifikatu bat gabe uko egin zaion kasuetan, uko egindako enplegurako aurreikusita zegoen iraupen berbera izango du etendurak, behin gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua egin behar duten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egiaztatzen dutenean, hala dagokionean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin koordinatuz, Gizarteratze Hitzarmenean itundutakoa ez dela betetzen.

Enplegu horrek izan dezakeen iraupena ezezaguna denean, etendura hiru hilabetekoa izango da, eta kontratu mugagabe bati uko egin zaionean etendura hori hemezortzi hilabetekoa izango da.”

[2017ko Diagnostiko-txostenean, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituenen,](#) 92. orrialdean, Ararteko honek dagoeneko azaldu zuen honako premia hau: ***“Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearen etenaldiaren iraupena argitzea, etenaldi-kausa bakoitzari dagokionez, eta etenaldi horrek iraupen zehatza duen kasuak eta prestazioa jasotzeko eskubidearen etenaldia hori eragin zuen kausa indargabetu arte mantentzen den kasuak bereiztea.***

Prestazioen etetearen iraupena zehazten duen arau garapenik ez dagoenez, administrazioak hautatzen duen aukera inola ere ezin da erabiltzailearentzat zailena izan; izan ere, eteteak 12 hilabeteko iraupena aplikatzea ontzat ematen bada, enplegua sustatzeko erakunde autonomoak kexagilea zigortu du, etenaldi luzeena ezarri diolako.

Hala ere, egoera hori eta beste batzuk arautuko dituen arau-garapena behar da, aipatu 2017ko diagnostiko-txostenean ondorioztatu zen moduan.

Erakunde honek hainbatetan proposatu du etetea erabakitzeko arrazoiak eta etenaldiaren iraupena behar bezala argitzea, jokabideen larritasunaren arabera zigorrak ezartzen dituen zehapen-prozedura arautu eta garatzea, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea nahitaez etetea erabaki gabe, batez ere titularrak seme-alabak kargura dituenen eta prestazioa jasotzeko baldintzak betetzen dituenen.





Arartekoak 2017ko diagnostiko-txostena ekartzen du gogora, hain zuzen, 44. gomendioa; bertan, honako hau proposatu da, besteak beste:

“Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearen etenaldiaren iraupena argitzea, etenaldi-kausa bakoitzari dagokionez, eta etenaldi horrek iraupen zehatza duen kasuak eta prestazioa jasotzeko eskubidearen etenaldia hori eragin zuen kausa indargabetu arte mantentzen den kasuak bereiztea.”

-Prestazioa eteteko kausak baino ez diren jokabideak mugatzea eta arau-hauste bat eragiten duten eta prestazioa etetea eragin dezaketen eta arau-haustea izan daitezkeen jokabideengandik bereiztea.

-Zehapen-prozedura arautzea eta aplikatzea.

-Adingabearen interes gorena errespetatzeko eskubidea eta proportzionaltasun-judizioa kontuan hartzea.

4.- Egoera horietan, eta bizikidetzaren unitatearen osaera kontuan hartuta, Arartekoak, berriz ere, **adingabearen interes gorena** administrazio publikoaren erabakietan kontuan hartu beharreko lege-agindua dela gogorarazi nahi du. Ildo horretan, erakunde honek Gomendio Orokorra plazaratu zuen, *Arartekoaren 2/2015 Gomendio orokorra, politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman;* horretan aztertu egin da zer esan nahi duen diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sisteman adingabearen interes gorena aplikatzeak, eskubide substantibo, interpreta daitezkeen printzipio juridiko eta prozedurazko arau gisa. Bertan, honako hau gomendatu zen, besteak beste:

“Prestazioak eteteko edo iraungitzeko prozedura batean, adingabearen interes nagusia zaintzeko asmoz, prestaziorako (edo prestazioetarako) eskubidea mantendu behar dela ondorioztatzen denean, betebeharra ez betetzeari dagokion zigortzeko prozedura has dadila.”

“Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteari eta iraungitzeari buruzko erabakietan, bizikidetzaren unitatean haurrak daudenean, adingabearen interes nagusia ebaluatu dadila, interes hori lehentasunezko zatik jo dadila, eta neurtu daitezela prestazioen onuradun diren bizikidetzaren unitatearen kideek (haurren gurasoek edo tutoreek nagusiki) betebeharren bat ez bete izanagatiko haustek.”





“Haurrak dauden bizikidetza unitateei eragingo dieten ebazpenetan, prestazioak etetea eta iraungitzea erabakitzen denean, haurraren eskubideetan eta garapenean edukiko dituen ondorioak azaldu eta justifika daitezela.”

Jarrera hori baieztatu egin da haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa indarrean sartu ostean. Arartekoak azpimarratzen du lege organikoa dela, beraz, izaera berezia duela ordenamendu juridikoaren iturrien sisteman.

5.- Ondorioz, Arartekoaren iritziz, Lanbidek kontuan izan behar zituen, batetik, hizpide dugun kasuko egoera berezia, eta bestetik, kexagileek entitate hartzekodunarekin adostutako ordainketa planak bete izana –berandu bada ere–. Bestalde, ulertu behar izan zuen hipotekaren birfinantzaketa gaitz erdi zela, eta hipoteka exekutatzea saihesteko aukera bizikidetza-unitatearentzat. Testuinguru horretan, ezin da esan eskura dituzten baliabideak arduraz administratu ez direnik, eta arretaz jardun ez denik, egoera ekonomikoa edo bazterkeria-egoera larriagoa bihur ez dadin.

Aitzitik, bi pertsona helduk eta bi adingabek osatutako bizikidetza-unitate horren prestazioen ordainketa eteteak are larriago bihurtu du familiaren defentsa-gabezia eta hasierako ahultasuna; ondorioz, larriagotu egin da familiaren bazterketa ekonomikoa eta sozialeko egoera.

Era berean, berriz azpimarratu behar da diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea eteteko denboraren iraupena argitzeko premia –eteteko arrazoi bakoitza kontuan hartuta–; horretan, bereizi behar dira honako kasu hauek: batetik, etenaldiaren iraupena jakinekoa denean; eta bestetik, prestaziorako eskubideak arrazoia desagertu arte etenda jarraitzen duenean.

Izan ere, espedientea aztertuta, Lanbideren jokabidean hobetzeko tarte bat dagoela ondoriozta daiteke. Hori dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Arartekoak honako gomendio hau egin nahi du:





Gomendioa

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen dio berriz azter dezan Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpena – diru-sarrerak bermatzeko errenta 12 hilabetez eteteko–, ez baitago etetea erabakitzeko arrazoirik, ezta etenaldiaren iraupena kalkulatzeko sistema baliozkotu dezakeen nahikoa lege-oinarririk ere.

